

Egun mundialak

Anjel Lertxundi

Ez dakit zein esku ezkutuk hautatzen dituen egun mundialak, nork erabaki duen atzokoa Biblioteken eguna seinalatzea eta gaurkoa, berriz, Internet-ena. Ez dira gauza bera, Internetek ez baitu oraindik lortu Borges-en ipuineko Babelen liburutegia izatea, baina laster gertatuko da miraria. Begira adibidez Armiarma proiektuari: biblioteka onenek baino hemeroteke oparoagoa eskaintzen ari zaigu dagoeneko Interneten. Atzoko eguna ospatu zuten Armarmakoek? Gaurkoa bustiko dute? Bietan hanka bana jarrita eutsiko diote bi egunetako parrandak ahuldutako orekari?

Atzokoa eta gaurkoa laster sinonimoak izango direla eta egunetako bat kenduko balute, berebiziko protestak egingo genituzke bidegabekeriaren handia salatzeke: biblioteken eta Interneten fusioak ekarriko diguna hain izango baita mundiala, egun bakarra gutxi iruditzen zaigu ezkontza ospatzeko.